


Informazio ekonomiko-finantzarioa



Informazio ekonomiko-finantzarioa

Ingurune ekonomiko eta finantzarioa 2010eko ekitaldian

2008. urtean hasitako krisi ekonomiko eta finantzarioaren egonkortzea izan da 2010eko ekitaldiaren ezaugarri nagusia. Egonkortze-prozesu hori mundu-mailako agintaritzen ekintza koordinatuaren ondorioz sortu da, historia ekonomiko modernoan sekula eza-gutu izan den erantzunik zabal eta bizkorrenaren ondorioz alegia.

Baina hauskortasuna izan da, hala ere, egonkortze-prozesu horrek izan duen ezaugarri nabarmenetakoa. Susperraldia botere publikoen jardunean oinarritu da batez ere eta, zoritxarrez, botere horietako askok jarduteko zituzten marjina estuak uste zutena eta nahi zutena baino askoz ere lehenago ahitu direla ikusi izan dute. Nazioarteko elkartruke komertzialen gutxiagotzea eta herrialde europarrek jaulkitako zorrarengan jarritako konfiantzaren galera aipa daitezke hauskortasun horren osagairik nabarmenak bezala, eta horrek guztiak sineskortasun-krisi sakona ekarri du, zalantza handiak sortuz Europar Batasuneko herrialde batzuek (Greziak edo Irlandak) eduki zezaketen gaitasunaren inguruan, baina duda-muda horiek Portugal, Espainia eta Italiaren kasura ere iritsiz, beste batzuen artean. Herrialde horien kanpo-zorraren arrisku-primetik gorantz egin dute nabarmen, finantzaketaren kostua garestituz nazioarteko merkatuetan, herrialde horietan suspertzearen erritmoa edo krisitik irteteko unea erabat baldintzatzeraino.

Horrek guztiak zalantzan jarri du nazioarteko sistema finantzarioaren egonkortasuna, euroari berari eraginez bereziki eta ekitaldiaren bigarren zatian dibisen arteko halako borroka moduko bat pizteraino, nazioarteko merkataritzan bizi izan diren tentsio eta gorabeheren isla bezala. Hala eta guztiz ere, amaitu berria den ekitaldi osoan zehar, erronka nagusiak beste bide batzuetatik joan dira: ekonomiaren hazkunde-potentziala berriro ere lortzeko premia, egungo krisiak emandako irakaspenak ikasi eta eskura dauzkagun politika ekonomikoko tresnak eta baliabideak ahalik eta modurik eraginkorrean erabiltzea, etab. Moneta-politika tradizionala, erregulazioko tresnak eta politika fiskalerako egonkortzaile automatikorik onenak diseinatzea, neurri horiek guztiak elkarrekin konbinatzea izan dira garapenik handiena eskatzen duten aukeretako batzuk.

Gertakari horietan, hala ere, herrialde-bloke nagusien portaera ez da homogenea izan, eta bloke bakoitza bere aldetik mugitu da. Horrela, ekonomia emergenteak bereizten dira lehenik eta behin, Txina, India eta Brasil horien buruan, herrialde garatuak bigarrenik (AEB eta EB, batik bat) eta horien barruan lehen ere aipatuak izan diren eta zailtasun bereziak jasan dituzten herrialde-multzo bat, Europaren hegoaldean kokatuak daudenak. Gisa horretan, aurrenekoek hazkunde ekonomikoko erritmo oso altuak erakutsi dituzten bitartean, eta erritmo horiei eusteak desoreka makroekonomikoak ere ekar diezazkieke epe luzera, Europar Batasuna suspertze moderatuko bide batetik abiatu da, intentsitate apalekoa eta berriro ere kale egiteko arriskuekin baldin bada ere. Bloke honen barruan egongo lirateke zailtasunik gehien dituzten herrialdeak, egitura-mailako erreforma sakonen premia larrian daudenak, eta horixe da Espainiaren kasua, adibidez.

Nazioarteko mailan bloke nagusien artean izandako portaera bikoitz eta dibergente hori areagotuz joan da ekitaldiak aurrera egiten zuen heinean. Horrek mundu-mailako merkataritzaren hazkunde-erritmoak bizkortzea ekarri du, eta horrekin batera baita garapen bidean dauden herrialdeetako hazkunde ekonomikoa ere, ekonomia garatuek, eta Europar Batasunekoek bereziki, askoz ere aurrerapauso txikiagoak eman dituzten bitartean, Ameriketako Estatu Batuak bere erregistroak nabarmen hobetuz joan baitira, urteak aurrera egin ahala.

Horrela, bada, herrialde garatuetako ekonomiek susperraldi nabarmena izan dute, eta batez besteko hazkundeak % 3tik gorakoak izan dira herrialde horietan. Talde horren barruan, AEBek hazkundearen dezelerazio bortitza izan dute bigarren hiruhilekoan, hirugarrenean egonkortzera egin badute ere. Hazkunde amerikarra enpresa-inbertsioan eta gastu publikoan oinarritzen da batez ere, baina kanpo-sektorearen portaera aipatu da kontrako beste muturrean, inportazioen gorakada nabarmena esportazioen apaltzearekin konbinatzen baita. Laugarren hiruhilekoan izandako susperraldia kontsumoaren gehikuntzan oinarritzen da, eta urteko hazkundeak % 2,8raino iritsi da. Prezioei dagokienez, urteko inflazioa moderatua izan da, % 1,5 inguruan mugituz, energiaren prezioek bultzatuta, azpiko urteko inflazioa maila apalean baitago kokatua (% 0,8 besterik ez).

Japoniari dagokionez, hazkunde-tasa moderatuak izan ditu, hirugarren hiru hilekoan % 0,9raino igo direnak, urte osoan hazkundea % 4,3koa izan bazen ere. Eta horren arrazoia etxeko eskaria izan da, % 1eraino iritsi zena, eta zehazkiago esateko kontsumo pribatuaren alde jokatu duten aldi baterako faktoreak aipatu behar dira, ibilgailu-mota jakin batzuk erosteko emandako laguntza publikoak esaterako, edo urte-amaieran gertatutako zerga handiagoen aurretik tabakoak izandako eskari handiagoa. Kontsumoko prezioen mailak beherantz egin du azkeneko hiru hilekoetan. Inflazioa positiboa izan zen urrian aurreneko aldiz azken bi urteetan, tabakoaren eta energiaren fiskalitate handiagoak bultzatuta. KPI % 0,1 igo da urtean, baina azpiko indizeak, ordea, % 1,0 egin du atzera.

Bloke handien portaeran izandako desberdintasunak ez dira hor amaitzen, susperraldiaren bidetik mugitzen den eurogunera ere zabaltzen baitira aldeak (BPG % 1,8 hazi zen). Susperraldi hori ez zen, hala ere, hain nabarmena izan, eta bertan eragin handia izan dute neguko baldintza klimatologiko gogorrek, suspertzeko erritmoan eragin negatiboa izango duten azpiegitura-obra handi batzuk eten eta bertan behera uztera behartzeraino. Europar Batasuneko herrialdeen artean, geografiaren arabera dikotomia ikusten da, hazkunde-tasa garrantzitsuak dituzten iparraldeko herrialdeak batetik (Alemania, Suedia, Polonia, Eslovakia eta Erresuma Batua), hegoaldeko herrialdeen emaitza kaskarrak bestetik (Frantzia eta Italia) eta herrialde periferiko batzuek (Irlandak, Greziak, Errumaniak eta Espainiak) izandako atzerakada edo errezesioa azkenik. Gainerako Erdialdeko eta Ekialdeko Europako Herrialdeei (EEEH) dagokienez, kanpo-eskariak eta izakinen birjarpenak bultzatutako suspertzeko bidea erakusten dute, baina barruko eskaria oso ahula da, behingoagatik abiatzeko beharrezkoa duen indar eta bultzadarik ez baitu aurkitzen laneko merkatuan ezta kreditukoan ere.

Herrialde emergenteek dinamismo handia dute euren hazkundeko erritmoetan (+% 7,1ekoa), laguntzako politika monetario eta fiskalak erretiratzearen ondorioz eta kanpo-sektoreak izandako ekarpen txikiagoaren ondorioz zikloaren amaieran hazkunde horren moteltzea erregistratu den arren. Elikagaien eta lehengaien prezioak garestitzeak prezioen igoera orokorra ekarri du atzetik, lehendik ere altu zeuden arren. Hala ere, munduaren grabitate-zentroak herrialde emergenteetara desplazatzen jarraitzen du, herrialde horiek kuota gero eta handiagoa erdietsiz BPGaren sorkuntzan eta baita aldagai ekonomiko, komertzial eta finantzario gehienetan ere, herrialde garatuen kalterako. Horrek aldaketa esanguratsuak ekarri ditu mundu osoko gobernantza ekonomikoan, G7 izenekoak bere protagonismo-maila galdu egin baitu G20aren mesedetan, ekonomiako gaietan nazioarteko lider izateko eboluzioan. Eta bilakaera-prozesu horretan Indiak, Brasilek eta Errusiak, Txinaz gain, osatzen duten ekonomia emergente indartsuen taldea ("BRIC taldea" bezala ezagutzen dena) sendotu da protagonista nagusi moduan. Herrialde horiek gero eta pisu handiagoa hartzen dute mundu-mailako ekonomian eta, oro har, baita hazkunde-potentzial handia ere, oraindik ere elkarren artean desberdintasun handiak (produkzioakoak, merkataritzakoak, finantzarioak edo instituzionalak) erakusten badituzte ere.

Herrialde emergenteen artean, Txinak protagonismo berezia hartzen du. Bere BPG kanpoko eskari sendoan eta merkataritzako superabiti handian oinarritzen da. Bere hazkunde-erritmoa % 10 ingurukoa da termino errealetan. Inflazio-presioen eraginez, agintaritzaren monetarioak prezioak eustera bideratu ditu nagusiki bere politikak, maileguen eta gordailuen erreferentziako interes-tasak % 2,5eraino eta % 5,56raino igoz, hurrenez hurren, egoitza-higiezin eta janarien prezioen eboluzioari presioa kentzen saiatzeko eta ekonomiaren gehiegizko berotzea saihesteko sistema finantzarioaren likidezia drainatzeko neurriak ezartzearekin batera.

Latinoamerika ere herrialde emergenteen taldearen barruan kokatzen da, bertako ekonomia nagusiek izandako portaeren artean aldeak eta desberdintasunak sumatzen diren arren. Orokorrean, hazkunde-tasa altuetatik abiatuz, progresioko erritmoak mantsotuz joan dira 2010eko ekitaldian zehar (BPGaren hazkundea % 5,9koa izan da) eta inflazio-tentsioak gero eta nabarmenagoak dira elikagaien prezioak jasan duen igoera izugarriagatik. Dinamismo ekonomikoak herrialde horietan ezartzen ari diren sustapen-politiken eta kanpoko kapitalaren etorreraren berri ematen digu, baina horrek kanpoko merkatuekiko mendekotasun gogorra ere erakusten du. Zehazkiago esateko, Mexikon, BPG errealearen urte arteko hazkundea % 5,3koa izan zen 2010eko hirugarren hiru hilekoan (% 7,3koa 2010eko 2. hiru hilekoan). Brasilen produkzio industrialak % 8 igo zen ia, urte arteko tasari dagokionez, 2010eko hirugarren hiru hilekoan (% 14,3 2010eko 2. hiru hilekoan). Argentinan, produkzio industrialak % 9,3ko urte arteko batez besteko tasan igo zen hirugarren hiru hilekoan (% 10 2010eko 2. hiru hilekoan). Hiru kasuetan, baina, inflazio-presioak oso gogorrak dira.

Nazioarteko finantza-merkatuak lehen mailako protagonista bilakatu dira berriro ere 2010. urtean. Behin eta berriz berritutako tentsioek, euroguneko zenbait herrialdetan finantza publikoen iraunkortasunak sorrarazten zituen zalantza eta beldurrekin batera, konfiantza-krisi handia eragin dute zor subiranoko merkatuetan, likidezia ugari zegoen arren merkatu horietan.

Eta horrek Greziaren esku-hartzea ekarri du lehenik eta behin maiatzean, eta Irlandarena jarraian, azaroan. Zailtasunetan dauden herrialdeak babesteko eta herrialde horien zor subiranoaren muga-egunei aurre egin ahal izateko, Europar Batasunak egonkortasun finantzarioko mekanismo bat ezartzeak, batetik, erreskaterako funts bat osatzearekin batera, eta EBZak bonu subiranoak zuzenean erosi eta likidezia aparteko injekzioekin jarraitzeak, bestetik, merkatuetako tentsio-maila gutxitzea lortu zuen hasiera batean. Baina arintze hori aldi baterakoa soilik izan zen, eta Irlandaren banku-sistemak zuen hondamendia eta bere finantza publikoen desorekak ikusita, herrialde horren erreskatea behartu zuten zailtasunen ondotik, Portugal bihurtu zen arreta-gune nagusia, baina aldi berean merkatuen hurrengo geraleku bezala Espainiaren kasua adieraziz.

Merkatuen gainbegirada pean dauden herrialdeen zor subiranoaren diferentzialak nabarmen igo zituen horrek, erreferentzia gisa jokatzen duen 10 urterako bonu alemaniarrekiko. Horrela, zor publikoaren diferentzuala oinarritzko 300 puntura iritsi zen ia Espainian, 250 puntu inguruko zonan mugituz etengabe.

Politika monetarioak jarduteko profil laxoari eusten dio, AEBetan bezala baita EBn ere, susperraldi ekonomikoa erraztu eta berorren zabaltze-mugimendua abiarazteko bide bezala. Politika monetarioak zabaltzeak AEBetako kontsolidazio fiskalean atzerapenak ekarriko dituela aurreikus daiteke, administrazio publiko guztien defizita, orokorrean, BPGaren % 10aren ingurukoa baita herrialde horretan. EBZren interes-tasa ofizialek ez dute inolako aldaketarik izan 2009ko maiatzaren 13az geroztik, eta horrela, finantzaketako eragiketa nagusien prezioa % 1ean dago kokatua, kredituen marjina-erraztasunarena % 1,75ean eta gordailuen erraztasunarena % 0,25ean, eta horrek esan nahi du ez dela inola ere politika monetario murriztailerik ezarri, susperraldi ekonomikoaren bultzatzailea den politika monetarioa baizik.

Zenbait kasutan politika monetario guztiz espantsiboak ezartzeak ere, eta hori gertatu da AEBetan esate baterako, kanbio-tasei eragiten die. Horren ondorioz moneta ikaragarri ahultzen da, bere produktuen esportaziorako ahalmena indartuz, eta inportazio potentzialak desanimatuz. Gisa horretako politiken ondorioz kanbio-tasetan eta kapitalen fluxuetan gertatzen diren gorabeherak protesta latzak eragin dituzte Brasil bezalako herrialdeetan, euren monetak apreziazio edo balio-irabazte handiak jasan baitituzte. Protesten osteko mugimendu erreflexua babes-modukoa izan da zenbait kasutan, herrialdeen artean "dibisen gerra" bat piztu ondoren. Krisi osteko babes-erreflexu hori oso neurtua eta moderatua izan da oraingoz, Munduko Merkataritza Antolakundeak nazioarteko elkartrukeen arauak ezarri eta markatzen jarraitzen baitu. Hala eta guztiz ere, moneten gerra-arriskuak hortxe jarraitzen du, egoera sorrean bada ere. Kanbio-tasek modu nabarmenean eragiten diete kanpo-merkataritzako mugimenduei, moneten arteko harremanak herrialde jakin bateko produktuen edo transakzioen lehiakortasun-maila sendotu edo ahultzen duen heinean.

AAA kreditu-kalifikazioa duen epe luzeko zor publikoak eurogunean eta AEBetan izandako errendimenduak goranzko bidea jarraitu du, kasu batean nahiz bestean. Abuztuaren amaieran maila historikoki baxuetan kokatu ondoren, eurogunean, epe luzeko zor publikoaren errendimendu erreala modu esanguratsuan gehitu zen ekitaldiaren amaiera aldera, horren azpian zegoen susperraldi ekonomikoaren bultzada positiboaren isla edo eragin moduan seguruenik. Merkatu finantzarioetako epe luzeko inflazioaren igurikimen-adierazleek jaitsiera moderatua izan zuten. Euroguneako zor subiranoko merkatuetan aldi berean izandako tentsioen gorakadak zona horretako jaulkitzaile subirano batzuen diferentzialak maximo berrietaraino igotzea ekarri zuen. Abenduaren 1ean, bonu alemaniarrekiko diferentzialak oinarritzko 910 puntutan kokatu ziren Grezian, 605 puntutan Irlandan, 400 puntutan Portugalen, 260 puntutan Espainian eta 170 puntutan Italiaren kasuan.

Europako errenta finko pribatuak AEBetako bonu korporatiboek baino portaera erlatibo okerragoa izan du, zor subirano europarraren eragina sumatu baitu. Europako sektore finantzarioak jaulkitako aktiboak izan dira eragin hori gehien jasan dutenak eta, batez ere, mendeko zorrak, jaulkitzaileak porrot eginez gero lehentasun-hurrenkera oso atzeratuan baitago kokatua. Zenbait erakunde finantzariok bere baliabide propioak sendotzeko izandako kapitala gehitzeko premiaren albisteek ere ildo beretik jokatu dute.

Hasierako hazkunde-erritmo altuaren ondotik, eta ekitaldiaren amaieran erritmo hori aski apaldu ostean, errendimenduen kurbak jasandako lautzeak eta zor subiranoko merkatuetan izandako tentsioen gogortzeak baldintzatu dute inbertsioko funtsen eboluzioa, funtsak aktibo monetario likidoago eta seguruagoetatik epe luzeagoko eta arrisku handiagoko beste aktibo batzuetara aldatzeko pizgarriak gutxitu egin baitzituzten.

Errenta aldakorreko merkatuetan, burtsa-indizeen eboluzioak hegakortasun-maila handia erakusten du ekitaldiaren aurreneko zatian, hurrengo epean hazkunde-bidetik abiatzeko. Eboluzio hori berdin-berdin aplikatu daiteke eurogunean eta AEBetan. Aurreneko kasuan, enpresa-irabazi eraginkorretan eta itxarondako irabazietan izandako hazkunde gogorrean oinarritzen da eboluzio hori, eta baita orokorrean positiboak diren datu makroekonomikoen argitalpenean ere. Aldi berean, euroguneako zor subiranoko merkatuetan izandako tentsio berrituen eragin negatiboa ere jasan dute, seguruenik, akzioen prezioek, herrialde batetik bestera eta sektore batetik bestera faktore horren eragina diferentea izan den arren (banka-sektorea izan da gehien erasandako sektorea). Euroguneako errenta aldakorreko merkatuen ziurgabetasunak behera egin zuen kontuan hartutako epealdi horren zatirik handienean.

Erakunde finantzarioek sozietate ez-finantzarioei emandako epe laburreko banku-maileguez atzerakada handia izan zuten 2009ko martxotik aurrera, eta beheranzko bidean jarraitzen dute geroztik ere, erritmo zertxobait apalagoetan bada ere. EBZren iritziz, sektore horri emandako maileguen inguruan dagoen ebidentzia enpirikoak adierazten du horien eboluzioa ziklo ekonomikoaren atzetik doala. Horrela, 2010eko hirugarren hiruhilekoan beherakada-erritmoak apaldu edo murrizteak aurreko hiletan inflexio-puntu bat lortu zela iradokitzen du. Bide bera adierazten dute merkatuetan finantzatzeko joerarik gehien erakusten duten enpresen aldetik finantzaketako iturriak ordeztzeko saioak, batetik, eta barruko baliabide finantzario gehiago erabiltzeko joera eta aukerak, bestetik. Finantzaketaren arrakala, inbertsio errealeko gastuen eta barne-aurrezki gordinaren arteko aldea bezala ulertua (enpresak ematen duen finantzaketa erreala alegia), positiboa izan da urtearen aurreneko sei hilekoan zehar, eta horrek enpresei emandako kredituaren hazkunde txikiagoa justifikatzen du, enpresek autofinantzatzeko duten gaitasun handiagogatik.

Etxebizitza-merkatuaren errekupeazioak, bestalde, etxeei emandako maileguen hazkunde-tasak berriro gora egitea ekarri du 2010eko 3. hiruhilekoan, aurreko hiletan maila moderatuetan egon izan ondoren. Etxeetako errentari begira sortutako zorrak gorakada txiki bat izan du, baina interesen kargan ez da inolako aldaketarik sumatu.

Eta epe ertainera inflazio-presioak nahiko maila apalean mugituko direla dirudien arren, lehengaien gaineko nazioarteko eskari handiagoak batetik eta energia-prezioen eboluzioak, bestetik, egoera hori erraz alda daitekeela iragartzen dute. Prezioen eboluzioari dagokionez, Eurostat-ek egindako hasierako estimazioaren arabera, euroguneko urte arteko inflazio-tasa, IAPCK neurtua, % 2,2an kokatu zen abenduan, EBZk ezarritako % 2ko helburua gaindituz.

Horiek dira, hain zuzen ere, nazioarteko merkatuek konfiantza-krisi latzean eduki duten ekonomia espainiarraren jarduera mugatu eta zedarrizten duten ildo orokorrak, eta giro horrek, noski, asko zailtzen ditu krisia gainditu eta errekupeazioko bide argian aurrera egiteko beharrezkoak diren erreformak. Zor subiranoko jaulkipen berriei ezarritako gainprimak bide hori iradokitzen du behintzat, eta are beharrezkoagoa bihurtzen du bateratze fiskala, erakunde finantzarioen konfiantza berreskuratu eta finantza-marjinak berregiteko, eta kreditu-fluxua atzera berriz sistemara itzultzeko, inbertsio produktiboaren finantzaketarako oinarritzkoa baita, eta ekonomia espainiarraren lehiakortasunak bertan hartuko baitu euskarri garrantzitsua.

Hori guztia ezinbestekoa da enplegua sortzeko gai izango diren hazkunde ekonomikoko erritmoetara itzultzeko eta, bide batez, langabezia-mailak Europar Batasuneko estandarretara birbideratzeko, abiapuntuan dauzkagun konparaziozko mailak oso kontrakoak baitira (Europako langabezia-tasa ia-ia bikoiztu egiten delako Espainian). Prozesu horrek hiritarrentzat eta eragile ekonomiko eta sozial desberdinentzat aberastasun eta ongizateko espiral positiboa berriro martxan jartzea esan nahiko luke azken finean.

Espainia okerren posizionatutako ekonomien artean aurkitzen zen EBren barruan 2010. urte-hasieran, bertan ziklo ekonomikoak atzerapen handiagoa baitauka errekupeaziorako, eta produktibitatean izandako aurrerapauso eskasek apenas baitute irteerarik berrikuntzaren bidez. Bere egitura-mailako defizita oso handia zen (BPGaren % 9koa urte-hasieran, eta % 3,7koa azaroan), eta horri gehitu behar zaio bai enpresek eta baita familiek eta erakunde finantzarioek ere gehiegizko apalankamendu-maila daukatela, eta kanpoarekiko zorra ere gehiegizkoa dela. Bide horretatik, Nazioarteko Diru Funtsak azpimarratzen zuen bezala, Espainiak lan-merkatu disfuntzionala dauka: produktibitatearen hazkundera anemikoa da, lehiakortasuna eskasa eta banka-sektorea oso ahuldua dago.

Egoera horren aurrean jarduera bultzatzeko pakete-sail bat jarri da martxan 2010eko ekitaldian, aurrekontuen austeritatea gehitzera, lan-merkatua, negoziazio kolektiboa eta pentsioak erreformatzera, eta azpiegituren aparteko planak aktibatu eta bizkortzera bi-

deratutako neurriak betiere. Sistema finantzarioaren berregituraketari ekin zaio, FROB delakoaren sorkuntzarekin —eta horrek eragin berezia izan du aurrezki-kutxetan—, eta Aurrezki Kutxen Aginte Organoen Legearen erreformaren onarpenarekin, Europa mailako estres-probak egin eta argitaratu ondoren. BEZaren erregimena ere aldatu zen, urtearen erdialdera, eta tasa orokorra % 16tik % 18ra igo zen.

Ekonomia espainiarrak errekupeazio arineko bideari ekin dio 2010ean, eta horrela aurreneko hiruhilekoan -% 1,4koa zen uzkurraldia % 0,6koa bilakatu da laugarren hiruhilekoan, bigarren hiruhilekoko % 0tik eta hirugarreneko % 0,2tik, hurrenez hurren, pasatuz. Barne-eskaria uzkurra da, eta kontsumitzaileen nahiz enpresen konfiantza-adierazleen beherakadarekin eta langabezia-tasa altuekin lotua dago; zehazkiago esateko, kontsumitzaileen konfiantza-adierazlea batez besteko historikoaren nahiko azpitik mugitzen da, eta horrek ezin hobeto erakusten du kontsumoa berrabiatzeko dagoen indarra oso eskasa dela.

Kontsumo pribatuak halako errekupeazio-itxura bat izan zuen bigarren hiruhilekoan, baina ez zen jarraipenik izan hurrengoetan; esparru fiskalaren aldaketak, batetik, eta uztailaz geroztik gertatutako BEZaren igoerak, bestetik, erosketak aurreratzeko eragina ekarri zuen, seguruenik, eragile ekonomikoen artean. Kontsolidazio edo bateratze fiskalaren eraginez sektore publikoak hazkunde ekonomikoari egindako ekarpena negatiboa izan da 2010ean.

Inbertsioak, eraikuntzari dagokionak batez ere, gainbehera ikaragarria izan du ekitaldian, eta hori izan da eredu ekonomiko espainiarraren ezaugarri nagusietakoa, hain zuzen ere. Azpiegiturretan izandako murrizketek azaltzen dute portaera horren zati handi bat. Ekipamenduko ondasunetan egindako inbertsioak izandako hazkunde-tasetan, aitzitik, aurrerapen mugatua sumatzen da, produktzioko ekipamendu industrialen berrikuntzari eta inbertsio berriari lotua dagoena. Kargako ibilgailuen matrikulazioak aldaketa-tasa positiboa erregistratu du azaroan, aurreneko aldiz uztailaz geroztik. Barne-eskariaren jaitziera kanpoko merkatuen ekarpen positiboarekin konpentsatzen da, eta ekarpen hori aurreneko eta hirugarren hiruhilekoetan nabarmendu zen bereziki.

Kanpoko sektoreak protagonismo berri bat irabazi du, beraz, Europar Batasuneko ekonomiarik garatueneren (iparraldeko herrialdeen eta Alemaniaren batez ere) errekupeaziora lotua agertu den heinean, herrialde horietara iristen baitira Espainiako esportazio gehientsuenak. Eta esportazio horien tirakada-indarra hazkunde espainiarrera ere iristen da, ekarpen positiboari dagokionez. Eta 2009an gertatutakoaren kontra —aldi hartan kanpoko ekarpena ez baitzeturten esportazioek inportazioen gain zuten indar handiagotik, bigarren horiek aurrekoen aldean izandako murrizketa edo uzkurraldi handiagotik baizik—, esan daiteke 2010. urtean kanpoaldeak ekonomia espainiarraren hazkundera izan duen ekarpenak eredu ortodoxoagoari jarraitzen diola eta esportazioen dinamismo handiagoari zor zaiola.

Eskaintzaren ikuspegitik, jarduera industrialak dinamismo eskasa erakusten du, baina hala ere hobekuntza txiki bat sumatzen da kanpoko merkatuen eskari handiagoari lotuak dauden konfiantza industrialeko adierazleetan.

Zerbitzuek ere portaera ahula erakusten dute, zalantzarik gabe, informazioaren eta jakinarazpen edo komunikazioen eskarian edo jarduera profesional, zientifiko eta teknikoe-tan errekuiperatzeko ia batere sintomarik gabe.

Eta enpresa-emaizten ikuspegiaren aldetik, nolabaiteko hobekuntza sumatzen da, aurreko ekitaldiko emaitzekin alderatuz gero, baina ez da ahaztu behar 2009. urtea krisiaren unerik sakonenarekin batera gertatu zela. Horrek enpresetan krisiaren alderdirik latzena honezkero pasatu dela pentsaraztera eraman gaitzake, eta enpresa horien sa-neamenduari ekin diogula jadanik. Eta fenomeno hori positiboa izanik ere, aldaketaren intentsitateak ez dauka oraindik enplegu garbia sortzeko adina indarrrik.

Izan ere, laneko merkatuak azaltzen duen eboluzioan enpleguaren suntsipenak ez dauka amaierarik ez etenaldirik ere, eta galera orokorrak agertzen dira sektore gehienez. Gizarte Segurantzara afiliatutakoen erritmoak 16,4 milioi pertsonako batez besteko saldoa erakusten du hileko, abendurako espero zena baino zifra baxuagoa. Abenduan erregistratutako langabezia 4,1 milioi pertsonatik gorakoa da, eta aurreko urteko hila-bete berarekin alderatuz gero igoera % 4,5ekoa izan da. Beraz, laneko merkatuaren hondamen edo narriadurak aurrera jarraitzen du, lehendik zegoena baino motelxeago baldin bada ere.

Ekonomia eta Ogasuneko Ministerioaren arabera, Kontsumoko Prezioen Indizeak (KPIak), urte arteko % 3ko aldaketa-tasa izan zuen Espainian abenduan. Urteko batez bestekoari dagokionez, 2010eko inflazioa % 1,8koa izan zen, 2009koa baino 2,1 puntu portzentual handiagoa. Inflazioaren aldi baterako gorakada horretan KPIaren osagai nagusi guztiek izan zuten bere eragina, baina horietako hegakorrenak, energiak eta elikadurak hain zuzen ere, eragin zuten gehien. Horregatik, KPIaren azpiko osagaiaren gehikuntza ez zen KPI orokorrarena bezain indartsua izan. Horrela, urteko batez bestekoari dagokionez, azpiko inflazioa esaten zaion adierazlea % 0,6koa izan zen, 2009an baino bi hamarren gutxiago.

Balantza komertzialak, iazko urtearen aurreneko partean izandako hondamenaren os-tean, joera-aldaketa bat erakusten du; 3.880 milioi euroko defizita agertzen du (aza-roan), hiru hilabetez jarraian hobekuntzak izan ondoren. Hala ere, esan beharra dago balantzaren osagai energetikoan defizita gehitzeak multzo osoaren errekuiperazio edo suspertze-erritmoa moteltzea ekarri duela. Azaroko kontu korronteko defizita 48.667 milioi eurokoa da, BPGaren % 5aren azpitik.

Euskal ekonomia eta Nafarroako ekonomia

2010eko ekitaldian zehar EAEko eta Nafarroako ekonomiak giro zail eta oso hegako-rreran mugitu dira, suspertzeko bidean sartzeko lehen pausoak emanez, susperraldi hori oso zalantzazkoa eta oraindik berretsi gabea bada ere. Horrela, BPG % 0,3 hazi da EAEn eta % 1,2 Nafarroan. Azkeneko kasu horretan, hazkundea 2009ko bigarren hiruhilekoan jo zuen behea, baina Espainian baino indar gutxiagorekin, eta nabarmen-tzeko modukoa da une horretatik aurrera susperraldia bizkorragoa izan dela, 2010eko aurreneko hiruhilekoan jadanik bide positiboan baitzegoen, V moduko ibilbidea eginez.

Euskal ekonomiak, bere aldetik, nolabaiteko atzerapena erakusten du bere zikloan erreferentziatzeko beste bi zikloekiko, eta hiruhileko bat beranduago eskuratuko du bere minimoa, 2009ko 3. hiruhilekoan alegia; eta indize horren errekuiperazioa ere Espai-niako bidearen eta Nafarroako bidearen tartean kokatzen da. Euskal ekonomia kontrako zentzuan jokatzaren dute eta bere eboluzioa baldintzatzen dute bi indarren artean mu-gitzen da: eurogunearen susperraldia, batetik, % 1,8ko hazkundearekin, eta ekonomia espainiarraren -% 0,1eko beherakada bestetik. Aurrenekoak euskal ondasunen espor-tazioen % 31 hartzen du beretzat, bigarrenera ondasunen kanpoko salmenten erdia ia (% 46, zehazkiago esateko) bideratzen den bitartean, eta, beraz, euskal ekonomiaren gain faktore horren eragina oso handia eta erabakigarria da.

	2007		2008		2009		2010	
	EAE	NAFARROA	EAE	NAFARROA	EAE	NAFARROA	EAE	NAFARROA
BPG ERREALA	3,9	3,8	2,0	1,9	-3,3	-2,5	0,3	1,2
JARDUERA-TASA	57,76	60,31	58,15	60,65	57,4	59,7	57,9	59,76
LANGABEZIA	5,73	4,28	8,33	8,12	11,5	10,5	10,9	11,6
KPI	4,20	4,20	1,90	1,20	1	0,5	2,8	2,8

Iturria: Eustat, Nafarroako Estatistika Institutua, Federazioak landua.

Eskura dauzkagun azkeneko datuen arabera, eragileen konfiantza-falta eta enpleguaren segurtasunik eza izan dira, BEZ berria indarrean sartzearekin eta aurreneko sei hilekoan kontsumorako pizgarri fiskalak desagertzearekin batera, kontsumo pribatuak indarra galdu eta % 1,2an kokatzearen arrazoi nagusiak, kontsumo publikoa % 1ean kokatzen den bitartean laugarren hiru hilekoan.

Jarduera suspertu eta berreskuratzeak, sektore publikoaren jarduerarekin lotuak dauden adierazleen ikuspegitik, guztira biltzen den diru-kopuruaren hobekuntza dakar, diru-bilketa hori % 8,4ra iritsi baita azkeneko abenduan, intzidentzia berezia lortuz zeharkako zergetan (% 19,5eko hobekuntza), data berean zuzeneko zerga-bilketa murriztu egin den bitartean (-% 2,5). Eusko Jaurlaritzaren gastu totalak % 1,5eko hazkundera izan du azaroaren amaieran, eta gastu korranteak gora egin badu (+% 2,5) kapital-gastuak, berriz, murriztu egin dira (-% 7,3).

Inbertsioa beheranzko mailetan mugitzen da etengabe, murrizketa horren intentsitatea gero eta txikiagoa den arren: horrela, 2009ko laugarren hiru hilekoan -% 14,6 izatetik -% 3,2 izatera pasatzen da 2010eko IV. hiru hilekoan. Inbertsioaren uzkurraldi gero eta txikiago hori EAEko lizitazio ofizialaren suspertzeak eragina da, beste hainbat arrazoren artean, enkante horiek gora egin baitute eraikuntzari dagokionez eta obra zibilean batez ere. Etxebizitza-adierazleek, hala ere, ez dute oraindik inolako suspertze-sintomarik erakusten. Zentzu honetan, eta Sustapeneko Ministerioak emandako datuen arabera, 2010eko 3. hiru hilekoa ixtean hasitako etxebizitzak (-% 69) eta baita amaitutakoak (-% 15) ere, hala nola azaroan hipoteken zenbatekoan nahiz bolumenean izandako murrizketek (-% 6 eta -% 1, hurrenez hurren), gehiegizko etxebizitza-eskaintzaren aurrean sektorean gertatzen ari den doikuntza islatzen dute. Gertaera hori bigarren eskuko etxebizitzaren prezioak izandako estankamenduan ere islatzen da.

2010eko ekitaldian zehar kanpoko sektoreak EAEko hazkundera duen ekarpenaren galera sumatzen da, puntu portzentualetan. Horrela, ekarpena lehen hiru hilekoan 1,8 puntuko izatetik 0,7 pp-ra pasatzen da 2010eko laugarrenean. Estatuari nahiz munduaren enparatuari egindako esportazioek eta inportazioek hazkunde-tasari dagokionez duten antzeko dinamismotik dator ekarpen hori (+% 12,8koak eta +% 12,2koak baitira hurrenez hurren). Aurrenekoen saldo totala 10.324 milioi €-koa da, inportazioena 10.676 milioi €-koa den bitartean. Saldo garbia defizitarioa da 352 milioi €-tan, % 96,7ko estaldura-tasarekin. Transakzioen bolumena (esportazioak gehi inportazioak) normalizatu egin da eta % 15,4ko hazkundera erakusten du.


Ekitaldiaren itxieran 975.890ekoa da EAEko pertsona okupatuen kopurua. Langabezia-tasa, berriz, % 10,9an kokatzen da. Biztanleria okupatuak eta langabezia dagoen populazioak izandako eboluzioaren ondorioz, jarduera-tasa % 57,8koa da 2010eko laugarren hiru hilekoan.

Nafarroako Estatistika Institutuak landu eta Nafarroako hiru hilean behingo Kontabilitateak eskaintako datuen arabera, ekonomia nafarrak susperraldi argi eta garbiko bidetara ekin dio 2010eko hiru hiru hilekoetan, 2009ko bigarren hiru hilekoan behea jo ondoren. Horrela, 2010eko I. hiru hileko -% 0,1etik II. hiru hilekoan % 1,5era pasatu zen, % 1,6ra III. hiru hilekoan eta % 1,9ra, azkenik, IV. hiru hilekoan.

Nafarroako ekonomiaren eboluzio mesedegarria, industrian erregistratutako hazkundetik dator, eskaintzaren ikuspegitik aztertuta eta, neurri txikiagoan, baita merkatuko zerbitzuetan sumatutako erreperazioetik ere, merkatuz kanpoko eta eraikuntzako zerbitzuetan estimatutako dezelerazioa konpentsatzea lortzen baitute.

Kontsumitzaileen konfiantza

Ezegonkortasunak markatutako ingurune batean, 89 puntura iritsi da euskal kontsumitzaileen konfiantza-indizea 2010eko IV. hiru hilekoan, 2009ko itxiera-datarekin bat datozen azken epealdian markatutako mailarik gorenera hurbilduz. Euskal kontsumitzaileen datua EBko kontsumitzaileen konfiantzak duen maila berean kokatzen da (89, +1) eta Espainiako kontsumitzaileei dagokiona gainditzen du (80, +2), horiek guztiak indizea egonkortzeko prozesuaren barruan baitaude.



Ekitaldiaren azken partean euskal kontsumitzaileen konfiantzan izandako erreperazioa aurrezteko igurikimenean izan duten aurrerapenetik dator (107, +22), langabeziaren igurikimenean (72, +9), ekonomia orokorraren inguruko igurikimenean (83, =) eta etxebizitzaren (95, +2) izan duten egonkortasunarekin batera. Adierazle horiek iradokitzen dutenez, inkestak % 22k uste du bere etxeko egoerak okerrera egingo duela (2009ko 2. hiru hilekoan % 40 ziren); % 44k uste du egoera ekonomiko orokorrak okerrera egingo duela oraindik ere (duela 6 hiru hileko % 62 ziren hori uste zutenak); % 53k uste du langabezia gora egingo duela (aipatu datan % 82 ziren); eta % 57k aurrezteko espero du (lehenago % 45 besterik ez ziren). Alegia, Konfiantza Indizearen osagai guztiek hobera egin dute aurre-aurreko datuekin alderatuz gero, eta horrek konfiantzaren aurrerapena islatzen du.

Kontsumitzaileen igurikimen horiek bere isla dute kontsumoaren, aurrezkiaren, eta etxebizitzak nahiz autoak eskuratzearen alorretan. Kontsumitzaileen eskariaren igurikimenean indizeak (76, -9) erakusten duenez, % 37k murriztu egingo ditu etxerako ondasunen erosketak, eta portzentaje hori krisiaren aurreko batez bestekoaren 15 puntu gainera dago. 2008-2009tik hona indizea berreskuratu egin den arren eta goranzko joera txikiarekin azaltzen den arren, krisiaren aurretik zuen batez bestekoa baino 11 puntu apalagoa da oraindik.

Euskal kontsumitzaileen kontsumoko adierazleak

	2010eko IV.hir.	2010eko III.hir.	2010eko II.hir.	2010eko I.hir.	2009ko IV.hir.	2009ko III.hir.	2009ko II.hir.	2009ko I.hir.
I. Kontsumitzaileen Konfiantza Indizea	89	81	82	81	93	72	67	70
Etxeko egoera ekonomikoari buruzko igurikimenak	95	93	89	89	94	86	80	79
Egoera ekonomiko orokorrari buruzko igurikimenak	83	83	75	74	88	63	63	54
Langabeziari buruzko igurikimenak	72	63	74	60	81	43	39	45
Kontsumitzaileen aurrezkiari buruzko igurikimenak	107	85	89	99	108	94	86	103

Iturria: HEHAKF

Indizearen erreperazio hori konfiantzaren erreperazio positiboko bidearen barruan sartu behar litzateke, baina hala ere adierazi beharra dago krisiaren aurreko uneetan baino maila nabarmen baxuagoetan mugitzen dela oraindik ere, krisiaren aurretik zuen batez bestekoaren hamaika puntuz azpitik baitago gaur egun.

Finantza-erregulazioa

2010. urtea garrantzi eta munta handiko erreformen ekitaldia izan da Espainiako arauen sarean, eta hortik sortutako erregulazioa ere ugaria eta muntazkoa izan da.

Bizi izandako nazioarteko krisiaren ondorioz Espainiako sistema finantzarioan sumatu diren zailtasunek aurrezki-kutxen erregimen juridikoaren erreforma martxan jartzea ekarri dute, kreditu-erakunde baliabide propioak sendotzeko kaudimen eta likideziaz arloetan xedatutako erabaki eta akordio berriekin, eta aplikatzeko den araudi fiskalarekin batera, beste neurri batzuen artean.

-2009/111/CE Direktiba, irailaren 16koa (azaroaren 17ko EBAO), 2006/48/CE, 2006/49/CE eta 2007/64/CE direktibak aldatzen dituenak, erakunde zentral bati lotutako bankuei, funts propioen zenbait osagairi, gainbegiratzeko erregimenari, arrisku handiei eta krisiaren kudeaketari dagokienez.

-2/2010 EBZ, urtarrilaren 27koa (otsailaren 5eko BOE), informazio finantzario publiko nahiz erresebatuari, eta egoera finantzarioen ereduari buruzko abenduaren 22ko Espainiako Bankuaren 4/2004 zirkularra aldatzen duena.

-6/2010 Errege Lege-Dekretua, apirilaren 9koa (apirilaren 13ko BOE), ekonomia eta enplegua suspertzeko neurriari buruzkoa.

-628/2010 Errege Dekretua, maiatzaren 14koa (ekainaren 3ko BOE), kreditu-erakundeetan Gordailuak Bermatzeko Funtsei (GBFei) buruzko 2606/1996 Errege Dekretua, abenduaren 20koa, aldatzen duena.

-948/2001 Errege Dekretua, abuztuaren 3koa, inbertsiogileen indemnitazio-sistemei buruzkoa.

-EOG/1718/2010 Agindua, ekainaren 11koa (29ko BOE), bankuetako zerbitzu eta produktuen publizitatea arautu eta kontrolatzen duena.

-EOG/1717/2010 Agindua, ekainaren 11koa (29ko BOE), inbertsioko zerbitzu eta produktuen publizitatea arautu eta kontrolatzen duena.

-712/2010 Errege Dekretua, maiatzaren 28koa (29ko BOE), ordainketa-zerbitzuen eta ordainketa-erakundearen erregimen juridikoari buruzkoa.

-10/2010 Legea, apirilaren 28koa (29ko BOE), kapitalak zurtzeari eta terrorismoaren finantza-erregulazioari aurrea hartzeko.

-407/2010 Erregelamendua, Kontseiluarena, maiatzaren 11koa (12ko EBAO), Egonkortze Finantzarioarako Mekanismo Europarra ezartzen duena.

-11/2010 Errege Lege-Dekretua, uztailaren 9koa (13ko BOE), aurrezki-kutxen gobernu-organoei eta erregimen juridikoko beste alderdi batzuei buruzkoa, bitartekari finantzarioen inbertsioko koefizienteen, baliabide propioen eta informatzeko betebeharren (partaidetzako kuoten) 13/1985 Legea, maiatzaren 25koa, eta aurrezki-kutxetako aginte-organoen oinarriko arauak erregulatzeko 31/1985 Legea, abuztuaren 2koa, aldatzen dituena.

-3/2010 EBZ, ekainaren 29koa (uztailaren 13ko BOE), informazio finantzario publiko nahiz erresebatuari, eta egoera finantzarioen ereduari buruzko Espainiako Bankuaren 4/2004 zirkularra aldatzen duena.

Aurrezki-kutxa federatuen eboluzioa

Ekonomia desberdinek aurrera egiteko baliatu duten abiadura-erritmoan izandako bitasuna izan da 2010eko ekitaldiaren ezaugarri nagusia: ekonomia emergenteak alde batetik, mundu-mailako % 50etik gertu dagoen pisu espezifikoak lortu dutenak, eta ekonomia garatuak, bestetik. Azken horien artean, zenbait herrialde esanguratsutako finantza publikoetan izandako zailtasunak nabarmendu behar dira, horrek eragin oso handia eduki baitu merkatuen eboluzioan, kontu publikoak saneatzeko premian, sistema finantzarioaren birmoldaketan eta atzera berriz hazkunde ekonomikoko tasa handiagoetara itzultzean. Era berean, areagotu egin dira fluxu finantzarioen arteko desorekak maila orokorrean, eta paradoxikoa badirudi ere, ekonomiarik aurreratuenen defizita (AEBetakoa, esaterako) ekonomia emergenteetatik (kasu honetan Txinatik) atera eta eskura zeuden soberakinekin finantzatu izan dela esan daiteke. Horrek guztiak bere eragina izan du azken hilabeteotan aplikatutako politika monetarioan.

Zor subiranoaren krisia bezala ezagutu denak oso zalantzan jarri ditu ez bakarrik sistema europarraren egonkortasuna, baita moneta bakarraren iraunkortasuna ere, Ekonomia eta Moneta Batasuna osatzen duten herrialdeen baitan. Greziak izandako zor-krisiaren gertakariak, hasiera batean behintzat, ez zirudien jarraipenik izango zuenik, eta EMBko beste herrialde batzuetara hain azkar hedatuko zenik, ondoren praktikan gertatu zen bezala. Eta horrek agerian utzi du prebentzio eta kontroleko sistemen zaurgarritasuna, eta baita ez dagoela gaur egun Europa mailan ager daitezkeen gertakari sistemikoei aurre egiteko prest dagoen tresnarik, Europa osorako gobernantza ekonomiko eta finantzarioa ziurtatuko duten mekanismoetan aurrera egiteko premia ere nabarmen azalduz.

Interes-tasak – Hilabeteko batez bestekoak urteko portzentajeen			
	Esku-hartze mota	Banku artekoa 3 hilabete	Euribor 1 urte
2009ko abendua	1,00	0,71	1,24
2010eko abendua	1,00	1,02	1,53
Aldaketa, op-tan	0,00	0,31	0,28
Aldaketa erlatiboa	%0,0	%43,5	%22

Iturriak: Espainiako Bankua eta guk landua.

Testuinguru horretan, bai euroguneak eta baita nazioarteko beste erakunde batzuek ere erreforma-sail bati ekin diote, egoera horri aurre egin ahal izateko. Jarduera-ildo horretan kokatu behar dira Arrisku Sistemikoen Europako Kontseiluaren sorrera, Egonkortasun Europarreko mekanismo bat martxan jartzea, eta Egonkortasun Finantzarioko Europako Erraztasuna izeneko erreskate-funts europarraren zuzkidura, merkatuek EMBan zuten konfiantza berreskuratzeko osagai egokiak bezala. Gobernantza europarrarekin lotutako aurrerapausoen artean, bestalde, aipa daitezke Egonkortasunerako eta Hazkunderako Itunaren berrikuspena, desoreka makroekonomikoen jarraipena gardentasun handiagoko giroan egitea eta ez-betetzeak gertatuz gero zigor eta zehapen-arauak bultzatzea.

Zuzenean erregulazio eta gainbegiratze finantzarioaren alorrari dagokionez, Basilea III bezala ezagutzen diren akordioek likidezia eta kaudimeneko eskakizun berriak ezartzen dituzte, arkitektura finantzario europarra berrantolatzea bideratutako ekintza-mulzoaren barruan.

Oro har, EBko herrialde guztiak ari dira beren sistema finantzarioen efikazia eta eraginkortasuna gehitzeko ahalegin handiak egiten. Lortu nahi diren xedeen artean egongo lirateke etorkizuneko krisi finantzario sistemiko posibleen eraginak moteltzea, kreditu-fluxuak ekonomia errealerantz duen eraginkortasuna mantentzea, etxeek eta enpresek euren arriskuak eta premia finantzarioak denboran zehar kudeatzeko duten gaitasuna babestea eta, azkenik, ordainketa-sistemen funtzionamendua babestea, kapitalaren segurtasuna eta likidezia bermatuz aurreztaileentzat.

Erreforma horiek guztiak osatzeko banku-sistemaren berregituraketa egokia lortzeko neurriak ere hartu beharko lirateke. EBZk dioenez, balantzeen saneamendua, arriskua-ren kontrol eraginkorra eta negozio-eredu garden eta sendoak lehen mailako osagaiak izaten jarraitzen dute kreditu-erakundeek asaldu eta nahasmenduei aurre egiteko duten indarra gehitzeko, finantzaketarako sarbide egokia ziurtatuz aldi berean, hazkunde iraunkorrerako eta egonkortasun finantzariorako oinarri egokiak diren aldetik.

EBZk ezarritako politika monetarioa hedakorra edo espantsiboa izan da, enkanteetako interes-tasa marjinalari % 1ean eutsi baitio, ekitaldi osoan zehar, inolako mugimendurik egin gabe. Banku arteko merkatuan ez da aipatzeko moduko aldaketarik egon. Euriborrek goranzko bidea egin du, moderatu samarra, eta horrela hiru hileko modalitatea urte-hasierako % 0,67tik % 1,02ra pasatu da urtearen itxieran, eta urte batekoa, berriz, % 1,23tik % 1,53ra.

Monetaren eta prezioen egonkortasunaren helburua garrantzi handikoa izan da, beraz, EBZk 2010eko ekitaldian izandako jardueran. Banku zentralak erosketa garrantzitsuak egin ditu bonuen merkatuan, kreditu eta likideziko aparteko erraztasunak eskainiz, eta horretarako aktibo finantzarioen gama zabalagoa onartu du berme kolateral moduan. Praktika hori modu iragankorrean egin da, hala ere, aldi baterako soilik, eta merkatuak normaltasunera itzuliz doazen heinean usadio hori pixkanaka desagertuz joango da.

Monetarik garrantzitsuenetako kanbio-tasen artean gertatu diren tentsioak izan dira kanbio-merkatuaren ezaugarria, gerra komertzial batean sartzeko posibilitatea iragaritzen baitute gorabehera horiek eta baita protekzionismo-giroaren gorakada ere mundu-mailako merkataritzan. Arazoa ez dago kanbio-tasaren hegakortasunean, doi-doi, Txinak bere moneta (renminbia) errebalorizatzeko eskaeraren aurrean emandako ezezkoak eragindako tentsioetan baizik. Eta horri ekonomiarik aurreratuenen moneta-politika espantsiboak gehitzen badizkiogu, erraz ulertuko dira kapitala herrialde emergenteetara bideratzeko joera eta herrialde horietako monetek jasaten duten balioa irabazteko tentsioak. Horrela, euroaren eta dolarraren arteko kanbio-tasa % 1,315ean kokatu da urtearen amaieran, euroaren ahuldade-giroan dibisa amerikarra % 7,9 apreziatu ondoren.

Ekonomia eta Moneta Batasunean (EMBn) inflazioa EBZk finkatutako aldaketa-bidean mantentzen da, goiko muga % 2koa izanik; hala ere, herrialde emergenteen hazkunde-eritmo bizkorrek eta lehengaien eskari gero eta handiagoak bultzatuta, lehengai horien prezioek nazioarteko merkatuetan izan duten igoera gogorraren mehatxuak ekar ditzakeen tentsioei egin beharko die aurre inflazioak.

Zor publikoaren merkatuan, aldeak nabarmentzen dira Europako eta Ipar Amerikako merkatuen artean. Azken horrek bere etekin-tasa murrizteko joerari eutsi dio urtearen erdialdera arte, eta une horretatik aurrera gora egin du bizkor-bizkor, hazkunde ekonomikoa bultzatzeko plan fiskal berriaren eta ziklo ekonomikoaren erreperazioaren babesean, eta horrek eragin oso positiboa izan du eragileen igurikimenean.

Europako zor subiranoaren krisiak errenta aldakorreko merkatuetara desplazatu du eskaria, zenbait sektoretan izandako irabazi enpresarialen hobekuntzak babestuta. Errenta aldakorreko merkatu europarren eboluzioan hegakortasun-maila altua eta noraezko mugimenduak izan dira funtsezko ezaugarriak, krisiak eta zalantzak harrapatutako herrialdeen panorama ez baitzen behingoan argitzen. Zor subiranoak babes moduan jokatu zuen krisiaren hasieran, baina ondoren abiarazitako krisiak bere balio positibo guztiak kendu zizkion eta segidan arrisku/errentagarritasun ratio hobeak zituzten beste balio batzuetara bideratu ziren funtsak.

Kreditu-jarduerak, bere aldetik, aurrerapauso txikia izan du, eta horrela etxeei emandako maileguen urte arteko hazkunde-tasa % 2,3an mantendu da EMBn. Etxeek dituzten aukera eta posibilitateei dagokien zorrak, berriz, gorantz jarraitu du pixkanaka, 2010eko azkeneko hiruhilekoetan nolabaiteko susperraldi ekonomikoa sumatu den arren.

Espanian, sektore pribatuari emandako kreditu-interes tasek beherakada garran-

tzitsua jasan zuten, bere mailarik baxuena % 3koa izanik. Baina gainbehera horren ondoren nolabaiteko igoera sumatzen da urte-amaieran, eta batez bestekoa % 3,57 inguruan kokatzen da, banku arteko tasen goranzko bideari eta arestian aipatutako zor espainiarraren arrisku-primaren gehikuntzari jarraituz. Termino errealean, ordea, finantzaketaren kostuak beherantz jarraitu zuen, modu oso suabea izan bazen ere. Horrek esplikatzeko du bereziki enpresei bideratua dagoen kreditu-inbertsio pribatuaren hazkunde. Kreditu komertzialaren bidez egindako kapital zirkulatuaren finantzaketak ere beherakada-eritmoen mantsotzea erakusten du bere aldetik.

Familien finantzaketak ere ez du abiatzeko zeinu garrantzitsurik erakusten, eta hazkunde-eritmo oso moderatuetan mugitzen da. Etxebizitzak finantzatzeko eskarian eragin handia du sektorearen egoerak, ez baita ahaztu behar burbuila inbentarioaren leherketan ostean, sektorea eskaintzaren gehiegikeriak benetan erasana geratu dela. Urtearen erdialdean BEZak izandako igoerak, bere aldetik, nabarmen eragin zion kontsumoko kredituari, eta horrek aurrea hartzeko eragina ekarri zuen aurreko hileetan erosketen dagokionez, eta erosketen murrizketa esanguratsua, uda ostean. Sektore publikoaren finantzaketa-eskaria progresiboa izan da, eta % 16ko urte arteko aldaketa erakusten du ekitaldiaren amaieran. Sektore pribatuaren berankortasun-tasa % 5,7raino igo zen.

Gordailuen eboluzioari dagokionez, erakunde finantzarioen likidezia-premien eraginez Pasiboan atzemandako funtsen ordainketa-gerra moduko bat piztu da. Epeko gordailuen batez besteko interes-tasa % 2,75era iritsi zen, eta horrek % 3,2ko hazkundea ekarri zuen gordailuen saldoan.

Merkatuetako hegakortasunak eragin berezia izan du inbertsio-funtsetan, eta aurreztailuek dirua atera dute era horretako produktuetatik, urte arteko beherakada -% 14an kokatuz gutxi gorabehera. Inbertsio-funtsen izaeraren eta motaren arabera, produktu horien etekina oso aldakorra izan da.

Epigrafe nagusien laburpena

Ziklo ekonomikoaren uzurtze-bideak, krisi finantzarioak eta eragileen konfiantza-faltak eta merkatuen hegakortasunak ere bere eragina izan dute Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen jardunean. Kanpo-zorraren muga-egunei aurre egiteko likidezia-gorabeherak, eta gainbegiratze eta kontrolerako arau zorrotzagoek ezarritako eskakizun berri gero eta ugariagoak, horietatik dira erakunde finantzarioen errealitatea markatzen duten faktoreak, sistema finantzario osoaren berregituraketa-prozesuarekin batera. Horrek guztiak uzurdura-giro orokorra sortu du erakunde finantzarioen emaitzetan, oro har. Eta Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxak ez dabilta giro horretatik oso aparte. Testuinguru horretan, 2010ean erakunde kideen multzoak zergen aurretik sortutako irabazia 363 milioi eurokoa izan da, eta horrek -0,28 pp-ko atzerakada esan nahi du batez besteko guztizko aktiboaren gain aurreko ekitaldiarekin alderatuz gero. Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Balantze Totalak 75.878 milioi euroko guztizkoa osatzen du 2010eko ekitaldiaren itxieran, eta horrek -% 3,2ko jaitsiera esan nahi du aurreko ekitaldiari begira.

Bezeroetatik atzemandako gordailuak 54.504 milioi €-raino iristen dira, baina 3.299 milioi € egin dute atzera ekitaldian, -% 5,7ko aldaketa alegia. Gertakari horixe bera ikusten da Administratutako Baliabide Komertzialei dagokionez (eta hor sartzen dira Hartzekodunen baliabideak nahiz balantzean sartu gabe geratu diren bezeroetatik erakarrirako baliabideak, Inbertsio Kolektiboko Erakundeekin eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeekin egindako eragiketak), baina horien kudeaketa bateratuak murrizketa moderatuagoa jasan du, -% 3,5koa, alegia, aurreko ekitaldian baino 2.217 milioi € gutxiago, 61.192 milioi €-ko totalera iristeraino.

EAEko AURREZKI-KUTXAK (Balio absolutuak)

Kontzeptua	2009	2010
Baliabide propioak	6.109	6.296
Bezeroen gordailuak	44.571	41.440
Bezeroen kredituak	44.092	44.821
Gizarte Ekintzako Funtza	328	290
Balantzea, guztira	59.012	58.261
Irabazia zergen aurretik	440	309
Bulegoen kop.	883	878
Enplegatuen kop.	5.642	5.476

Zifra ekonomikoak milioi eurotan

HEGO EUSKAL HERRIKO FEDERAZIOKO AURREZKI-KUTXAK (Balio absolutuak)

Kontzeptua	2009	2010
Baliabide propioak	7.319	6.968
Bezeroen gordailuak	57.803	54.504
Bezeroen kredituak	57.720	58.056
Gizarte Ekintzako Funtza	343	307
Balantzea, guztira	78.396	75.879
Irabazia zergen aurretik	576	363
Bulegoen kop.	1.219	1.214
Enplegatuen kop.	7.536	7.330

Zifra ekonomikoak milioi eurotan

Merkatuan 2010eko ekitaldian zehar izandako zailtasun guztien gaineratik, Federazioko Aurrezki Kutxek beren jarduera-eremuko garapen ekonomikoarekin lotuak dauden jarduerak babesten jarraitu dute, dela beraiekin lankidetzaz estuan diharduten instituzioetatik bultzatutako ekimenen eta proiektuen finantzaketari laguntzeko modalitatean, dela beren ekimenak aurrera eraman ahal izateko funtsak behar dituzten eskatzaile partikularrei nahiz enpresei laguntzeko modalitatean. Zentzu horretan, bezeroei emandako kredituak 58.056 milioi €-raino ailegatzen dira, aurreko urteko finantzaketa 336 milioi €-tan gehitu ondoren. Horrek % 0,6ko urte arteko hazkundea esan nahi du. Ondasun-bermea duten eragiketek aurreko ekitaldian izandakoaren antzeko aldaketa-tasari eutsi diote, % 2,1eko hazkundearekin. Era berean, gure erakundeen balantzean dauden zalantza-aktiboak 1.757 milioi €-tan kokatzen dira, iaiztik % 8,6 hazi ondoren.

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen balore-zorroari dagokionez, 12.206 milioi eurotaraino iristen zen aktibo horien balioa, eta hori aurreko ekitaldikoa baino -% 2,0 txikiagoa da.

Baliabide propioak

Nazioarteko sistema finantzarioak, eta horren barruan baita bere eragile nagusiek ere, aurre egin beharreko erronka nagusietako bat kapitala indartzearena da. 2010eko ekitaldian amaieran eta 2011koaren hasieran, aurrezki-kutxa espainiarren erreforma-prozesua jarri zuten martxan agintari monetarioek, agintari ekonomikoekin batera, eta erakunde

horien kopuruaren murrizketa eta indarrean dagoen esparru legalaren aldaketa izan dira sarritan prozesu horren azken ondorioak. Baliabide propioak esaten zaien konposizioan eta mailan zentratzen dira batik bat aldaketak, osagai horiek erakundeen sendotasun eta kaudimenaren bermea diren heinean. Islarik hurbilenak baliabide propioen mailan eta berme-koefizientean aurkitzen dira, horren mailarik baxuena % 8koa izan delarik 2010eko ekitaldian zehar.

Federazioko Aurrezki Kutxek erabilgarri izan dituzten kontabilitateko baliabide propioak 6.968,9 milioi €-koak ziren 2010eko ekitaldia ixterakoan, aurreko ekitaldian baino 349,7 milioi € gutxiago. Baliabide propio konputagarrien zifra horretan, % 85,3 oinarritzko edo 1. kategoriako baliabide propioak dira. Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen baliabide propioen zifra totalak % 17,3ko berme-ratioa ematen du, indarrean dagoen legeriak ezarritako gutxieneko eskakizunei dagokienaren halako bi baino gehiago (% 8koa da legezko minimo hori), eta zifra horrek ezartzen du, hain zuzen ere, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen taldeak duen kaudimen-maila altua.

Hartzekodunak

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek bere bezeroen gordailuetatik datozen 54.504 milioi € atzeman dituzte 2010eko ekitaldian, eta horrek 3.299 milioi €-ko jaitsiera, -% 5,7koa alegia. erakusten du aurreko urtearekin alderatuz gero.


Bestalde, eta Administratutako Baliabide Komertzial garbien guztizko kopurua kontuan hartuz, saldo totala 61.192 milioi €-ra iristen da, zifra horri inbertsio kolektiboko eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeekin egindako eragiketen multzoa gehitzen bazaio. Saldo hori ez da iazko mailara iristen, 2.217 milioi € baxuagoa delako, aurrekoa baino -% 3,5 gutxiago, hain zuzen ere.

BEZEROEKIKO ZORRAK

Zenbatekoak milioi €-tan



Administrazio Publiko Egoiliarren multzo instituzionalak % 6,1eko ekarpena egiten dio Bezeroekiko Zorraz sailaren saldo totalari, eta ekitaldian zehar pisu espezifiko irabazi du. Horien artean, administrazio autonomikoez daukate garrantzi erlatibo gehien. Sektore pribatutik datozen saldoak dira beste osagai nagusia, eta horien pisu espezifiko erabakigarria da saldoak atzemateko jardueran, saldoaren gainerako % 93,4 hartzen baitute. Azkenik, Ez Egoiliarren ekarpenak pisua galdu du, bere zenbatekoa oso txikia baita gaur egun.



Gordailu-mota nagusiaren osakerari begira, Bestelako Sektore Egoiliarren ataleko saldoen artean, partida nagusia Epeko Ezarpenei dagokiena ikusten da (% 59,2arekin); Ageriko Gordailuek bere garrantziari eutsi diote (% 33,8 izateraino), Aldi baterako Lagapenen kaltetan, azken horiek sektore pribatuarekin egindako eragiketen % 5,6 besterik ez baitute hartzen.

Atzeranzko bide bera jarraituz eboluzionatu dute IKEek kudeatutako baliabideen saldoak Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen multzoan. Inbertsioko funtsek atzemandako totala 6.498 milioi €-koa da urtearen amaieran, aurreko urtean baino % 13 txikiagoa, ekitaldian zehar 975 milioi €-tan murriztu baita.

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen, BGAEen, jarduera, aitzitik, oso positiboa izan da 2010ean, urte-amaierako saldoa 5.281 milioi €-koa baita guztira, saldo agregatua 113 milioi €-tan gehitu ondoren, eta horrek % 2,1eko hazkundera esan nahi du.

Zuhurtziaz kudeatutako bezeroen zorroek 462 milioi € egiten dute guztira, % 51ko hazkundera izan baitu sail horrek, aurrerapauso handia hain zuzen ere ondarean inolako islarik eduki gabe atzemandako baliabideen multzoaren barruan sartua dagoen jarduerarentzat. Eta horiek osatzera datoz aseguru-kontratuak, azken horien zenbatekoa 1.020 milioi €-ra iristen baita ekitaldiaren itxieran.

Agintari monetarioek Nafarroarako eta Euskal Autonomia Erkidegorako argitaratutako azkeneko datuak kontuan hartuz —ez da ahaztu behar datu horiek 2010eko hirugarren hiruhilekoaren itxierakoak direla—, Aurrezki Kutxek jarraitzen dute merkatuko kuotarik handiena edukitzen, administrazio publikoen eta beste sektore egoiliar batzuen gordailuei dagokienez.

Administrazio Publikoen eta Beste Sektore Egoiliar batzuen gordailuetan neurtutako merkatu-kuoten banaketa EAEen % 45,0ra igotzen da (-6,3 pp) ranking-eko aurreneko postuan dauden Aurrezki Kutxentzat, eta atzetik datoz bankuak (% 38,1arekin, +6,5 pp) eta kreditu-kooperatibak (% 16,9arekin, -0,2 pp). Nafarroako egoerari begiraturik, aldiz, Aurrezki Kutxen multzoa da nagusi, % 51,4arekin (-1,4 pp), eta jarraian kreditu-kooperatibak agertzen dira % 25,9ko kuotaekin (-1,2 pp), atzean utzi baitute % 22,6ko kuota duen banka (+2,5 pp). Ikusten den bezala, egoera guztiz aldatu da Nafarroan, kreditu-kooperatibek bigarren lekua hartu ondoren, erabateko iraulketa eman baitiote lurralde horretako ranking-ari.

**ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN ETA
BESTE SEKTORE EGOILIARREN GORDAILUAK**


	Bankuak	Aurrezki Kutxak	Kreditu Kooperatibak
Araba	% 26,7	% 49,4	% 23,9
Gipuzkoa	% 30,9	% 49,1	% 20,1
Bizkaia	% 15,5	% 41,4	% 13,1
EAE	% 38,1	% 45,0	% 16,9
Nafarroa	% 22,6	% 51,4	% 25,9

Iturriak: Espainiako Bankua, Buletin estatistikoa eta guk landua. Datuak 2010eko irailekoak dira.

Kreditu-inbertsioa

Krisiak sektore inmobiliarioari eragin dio batez ere, sustatzaileei emandako maileguei dagokienez batik bat, alor horretan nabaritu baitira zailtasunik handienak 2010eko ekitaldian zehar. Etxebizitzaren gehiegizko eskaintza, batetik, higiezinaren eskari-faltari erantsi zaio bestetik, eta horrek krisiaren aurreko urteetan etxebizitzaren prezioetan etengabe eta modu jarraituan gertatu izan den goranzko bidea gerarazi du. Horrek bere ondorioa izan du, noski, alderdi finantzarioan eta baita alor horretara bideratutako baliabideen zenbateko totalan, kreditu-inbertsioaren hazkunde-tasak, oro har, eta hipoteka-bermearekin emandako maileguenak, bereziki, aurrerapen apal samarrak izatea eragite-raino. Eta beherakada horrekin bat, higiezinaren merkatuari lotutako berankortasunaren hazkunde-erritmoa ere geratu egin da, beste alde batetik, dagokien hornidura-funtsetara bideratutako zuzkiduren zenbatekoak ere gorantz egin duen bitartean.

Horrela, bada, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen jardura testuinguru horren barruan sartzen da, eta 60.704,6 milioi €-ko kredituak eman dituzte guztira. Horrek 561 milioi €-ko hazkundera esan nahi du termino absolututan, % 0,9ko igoera hain zuzen ere.



Sektore pribatua da funts horien helburu nagusia, bertara bideratzen baitira totalaren % 96, sektore publikoak inbertsioaren % 3,1 soilik hartzen duen bitartean; gainerakoa (% 1) sektore ez-egoiliarra da. Eta sektore pribatuko osagaien modalitateei erreparaturaz gero, esan beharra dago % 78,3 ondasun errealeen bermea duen finantzaketari dagokiola, ondasun higiezinaren bermea gehienbat; jarraian datoz Beste zordun batzuk % 18,3arekin, eta merkataritzako kreditua, azkenik, sektore pribatua bideratutako totalaren % 1,5arekin.

Kreditu-inbertsioaren helburuari dagokionez, berriz, etxeetako gastua finantzatzera bideratutako kredituek hartzen dute zenbateko osoaren % 65,7 (1,5 pp-ko igoera), eta horien atzetik produktzioeko jardueren finantzaketara bideratutako kredituak datoz, totalaren % 33arekin oraindik ere, gainerako zenbatekoa instituzioen gastuak finantzatzera eta beste helburu batzuetara bideratzen den bitartean.

Berankortasunak ekitaldian izan duen eboluzioa moderatua izan da, zifra osoaren % 2,64an kokatzeraino, Beste Sektore Egoiliar batzuen % 3,06ra iristen den bitartean. Aurreneko kasuan gorakada 0,22 ehunenekoa izan da eta bigarrenean, aldiz, 0,20 ehunenekoa, betiere iazko zifrekin alderatuz gero. Estaldura-tasa totala, bere aldetik, % 77,8koa da, Beste Sektore Egoiliar batzuen % 107,9koa den bitartean.

ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO ETA BESTE SEKTORE EGOILIAR BATZUETAKO KREDITUAK


	Bankuak	Aurrezki Kutxak	Kreditu Kooperatibak
Araba	% 32,3	% 49,0	% 18,7
Gipuzkoa	% 34,1	% 46,6	% 19,3
Bizkaia	% 42,2	% 45,6	% 12,2
CAPV	% 38,3	% 46,4	% 15,3
Nafarroa	% 25,7	% 47,9	% 26,4

Iturriak: Espainiako Bankua, Buletin estatistikoa eta guk landua. Datuak 2010eko abenduak dira.

Espainiako Bankuak 2010eko itxiera-datari dagokionez emandako informazio publikoaren arabera, sektore pribatua bideratutako kreditu-jarduerak erakusten duen kuota-banaketan Aurrezki Kutxek % 46,4 hartzen dute (-% 0,4), mailarik altuenari eutsiz, eta jarraian bankuak agertzen dira, % 38,3arekin (+0,7 pp) eta kreditu-kooperatibak azkenik, EAEn sektore pribatu nahiz publikora bideratutako kredituen merkatu osoaren % 15,3arekin. Merkatuak egoera diferente samarra dauka Nafarroan, bertan Aurrezki Kutxek % 47,9 hartzen baitute (-% 0,2), ondoren kreditu-kooperatibak datoz, merkatu-kuotaren % 26,4arekin (+% 0,2), bankuen % 25,7ko kuota baino zertxobait altuagoarekin alegia (-0,4 pp).

Balore-zorroa

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen balore-zorroa 12.206,9 milioi €-raino iristen da, 2010eko ekitaldiaren itxieran % 2ko uzkurraldia izan ondoren.



Saldoa txikiagoa izateak hainbat arrazoi dauzka: Zorra adierazten duten baloreek -% 3,5eko jaitsiera izan dute, batetik, eta 6.591 milioi €-tan kokatzen dira; erakunde elkartuetan, talde anitzekoetan eta taldeko erakundeetan gauzaturako partaidetzen saldoa 5.088 milioi €-koa da, bestetik, horiek ere -% 1,0 egin baitute behera. Beste kapital-tresna batzuk izeneko sailak, bere aldetik, % 7,0ko aurrerapausoa eman du, 526,8 milioi €-ra iritsiz.

Aktibo likidoak

Ekitaldian zehar merkatuetan izandako likidezia-tentsioek balantzeko posizioak likidoen murrizketa ekarri dute, eta horrela Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen aktibo likidoen multzoak % 26,3ko uzkurraldia izan du, 8.673 milioi €-ko saldoa osatuz urte-amaieran. Aktibo likidoen osagaien artean, Kutxako eta banku zentraletako gordailuen posizioak dira doikuntzarik handiena jasaten dutenak, -% 74,5eko jaitsierarekin, 649,1 milioi €-ko saldoa bestela esanda; ildo berean kokatzen dira banku arteko merkatuko posizioak, laurdena baino zertxobait gehiago erori baitira, -% 26,3 zehazkiago esateko, horien saldoa 1.432,6 milioi €-koa izanik.

HEHAKF	Balio absolutuak		Aldaketa iaizko urtearen gain	
	2009	2010	2009	2010
1. Kutxa eta banku zentraletako gordailuak	2.548,4	649,1	% 112	-% 74,5
2. Estatuaren zorrak	6.828,6	6.591,3	% 1,1	-% 3,5
3. Kreditu-erakundeak	2.398,7	1.432,6	-% 32,3	-% 40,3
GUZTIRA	11.775,7	8.673,0	% 2,4	-% 26,3

Zenbatekoa milioi €-tan.
Iturria: HEHAKF

Azkenik, Estatuaren zorra da eragin negatiborik txikiena duena: murrizketa % 3,5koa izan da aurreko ekitaldiko itxierarekin alderatuz gero, eta saldoa 6.591,3 milioi €-raino iristen da.

Emaitza-kontua

Eurogunearen eboluzio monetario eta finantzarioari dagokionez, hazkunde monetarioaren eta maileguen hobekuntza iraunkor eta etengabea ikus daiteke, zenbatekoz apal samarra izan arren, azpiko moneta-zabalkundeak eboluzio moderatua izan duen testuinguru batean, bertan ez baita, bestalde, egoera desoreka dezakeen inolako inflazio-presiorik sumatzen. Etxei eta sozietate ez-finantzarioei emandako maileguak eta horien hazkundera dira sektore pribatuari emandako maileguen hazkunderaren arrazoi nagusia.

Testuinguruko baldintza horiekin, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek lortu dituzten Interesak eta etekin berdinetatik 1.708,6 milioi €-koak izan dira 2010ean, aurreko ekitaldian lortutako diru-sarrerak baino 838,3 milioi € gutxiago hain zuzen ere. Horrek -% 32,9ko sarrera txikiagoa esan nahi du. Eta batez besteko guztizko aktiboan (BBGAen) multzoaren gain neurtuz gero, portzentaje erlatiboa % 2,21eraino igo da, iazko % 3,3arekin alderatuz aurtengo ekitaldian -1,09 puntu portzentualeko jaitsiera esan nahi duena.

H.E.H.A.K.F. GALDU-IRABAZIEN KONTU PUBLIKOA 2010	Zenbateko absolutuak	% BBGAen gain	Bariazioa %tan BBGAen gain
Interesak eta etekin berdinetatik	1.708.547	2,21	-1,09
Interesak eta karga berdinetatik	817.149	1,06	-0,74
INTERES-MARJINA	891.398	1,15	-0,36
Kapital-tresnen etekina	266.953	0,35	0,06
Jasotako komisioak	377.255	0,49	-0,03
Ordaindutako komisioa	33.591	0,04	0,00
Eragiketa finantzarioen emaitzak (garbia)	220.080	0,28	-0,08
Kanbio-diferentziak (garbia)	39.626	0,05	0,06
Ustiapeneko beste produktu batzuk	56.966	0,07	0,03
Ustiapeneko beste karga batzuk	115.372	0,15	0,11
MARJINA GORDINA	1.703.316	2,20	-0,37
Administrazioko gastuak	786.888	1,02	-0,03
Amortizazioa	105.496	0,14	0,00
Horniduretarako zuzkidurak (garbia)	107.707	0,14	-0,06
Aktibo finantzarioak narriatzeagatik galarak (garbia)	307.098	0,40	-0,02
USTIAPEN-JARDUERAREN EMAITZA	396.128	0,51	-0,26
Gainerako aktiboak narriatzeagatik galarak (garbia)	68.915	0,09	0,00
Irabaziak / (Galarak) salgai dauden aktibo ez-korrente gisa sailkatuta ez dauden aktibo baxa ematean	78.793	0,10	0,04
Negozio-konbinazioetako diferentzia negatiboa	0,00	0,00	0,00
Etendako eragiketa gisa ez sailkatutako salgai dauden aktibo ez-korrenteen irabaziak / (galarak)	-43.364	-0,06	-0,05
ZERGA AURREKO EMAITZA	362.643	0,47	-0,28
Irabazien gaineko zerga	-48.018	-0,06	-0,09
Gizarte-ekintza eta -funtsetarako nahitaezko zuzkidura	13.347	0,02	0,02
ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIKO EMAITZA	397.313	0,51	-0,21
Etendako eragiketen emaitza (garbia)	0,00	0,00	0,00
EKITALDIKO EMAITZA	397.313	0,51	-0,21

Zenbatekoa milioi €-tan.
Iturria:HEHAKF

Bide beretik, Interesak eta karga berdinetziak sailean ere murrizketa bat gertatu da, eta sail horren zenbatekoa 817,1 milioi €-raino iritsi da, iazko denboraldi berean lortutako zifratik 565,5 milioi €-ra kokatuz. Eboluzio erlatiboak, bere aldetik, BBGAen gaineko portzentajea % 1,06raino jaitsi dela erakusten digu, 2009ko ekitaldian % 1,79ko maila erdietsi ondoren. Horrek esan nahi du urteko jaitsiera -0,74 puntu portzentualekoa izan dela.

Interes Marjinaren bi osagai nagusiak bateratzearen ondorioz ikus dezakegun bezala, diru-sarrerak gehiago murriztu dira gastu finantzarioak baino, eta beraz emaitza horrek uzkurketa-bide beretik garamatza. Eta joera horixe bera errepikatzen da sistema finantzario osoan, duela zenbait ekitalditatik hona. Aipatu Interes Marjina sailaren saldoa 891,4 milioi €-koa da eta bertan izandako uzkurraldiak 272,7 milioi €-ko zenbatekoa esan nahi du. Horrek iazko ekitaldian izandako % 1,51ko marjina aurtengoan % 1,15ekoa izatea ekarri du.

Kapital Tresnen Errendimenduek eboluzio positiboa izan dute aurtan. 266,9 milioi € eman dituzte guztira, iazko datua 50,7 milioi €-tan gaindituz. Hazkunde portzentuala % 23,5ekoa izan da, eta BBGAekin duten erlazioa % 0,35eraino iritsi da, alegia 0,06 puntu portzentualeko hobekuntza izan dute ekitaldian.

Jasotako komisioen eta ordaindutako komisioen arteko aldeari egotz dakioken ekarpen garbiak 343,7 milioi € suposatzen ditu, eta zifra horrek % 7,4ko hazkundera eta 0,45 pp esan nahi du BBGAen gain, % 0,45era iristeko.

Eragiketa Finantzarioen Emaitza garbiek iazko ekitaldian hazkunde oso garrantzitsua izan ondoren, 220,1 milioi €-ko ekarpena egin dute aurtan, kontzeptu berarengatik 2009an lortutako ekarpenaren azpitik kokatuz. Ekitaldi batetik bestera izandako aldeak esan nahi du sarreretan -% 21,8 gutxiago lortu direla, termino erlatiboetan ekarpena % 0,28koa izan da, alegia 0,08 pp txikiagoa. Bere osagaien artean azpimarratzeko modukoa da Galdu-irabazietan aldatetarik dituzten arrazoizko balioan ez baloratutako beste tresna finantzario batzuen kudeaketatik lortutako ekarpen positiboa (% 0,32 BBGAen gain). Gainerako osagaiak, Negoziazio zorroa eta Beste tresna finantzario batzuk izenekoak alegia, negatiboak dira BBGAen gaineko -0,05 pp-en balioko zenbatekoarekin.

Marjina Gordina 1.703,3 milioi €-koa da guztira, 281,2 milioi €-ko jaitsiera izan ondoren (-% 14,2koa); 2009an BBGAen gain % 2,58 izatetik % 2,2 izatera pasatu da, bestela esanda marjina 0,37 puntu portzentual estutu da ekitaldian zehar.

Administrazioko gastuak epigrafearen barruan Pertsonaleko gastuak eta Administrazioko beste gastu orokor batzuk sailak sartzen dira. Aurrenekoak 538,9 milioi €-koak izan dira -0,02 puntu portzentual jaitsi ondoren, eta BBGAen gainean 0,70ean kokatzen dira. Bigarren sailak, bere aldetik, 247,9 milioi €-ko saldoa dauka, eta BBGAen gain duen partaidetza 0,01 pp-tan jaitsi da, % 0,32an kokatzeraino. Administrazioko gastuak, oro har, 786,9 milioi €-koak dira, hiru hamarren egin dute behera eta % 1,02an geratu dira BBGAen gain.

Ekitaldian izandako gastuaren gainerako osagaiei dagokienez, amortizazioek eutsi egin diote batez besteko balantzean duten eta 0,14an kokatua dagoen partaidetza erlatiboari, bestelako epigrafeetan Federazioko Aurrezki Kutxen multzoak gastuari eusteko egindako ahaleginak nabarmen ikusten diren bitartean. Era horretan, Horniduretara bideratutako zuzkiduretan lortu da gastuan egindako murrizketa erlatiborik handiena, -0,06 puntu portzentualekin, BBGAen gain % 0,14an kokatuz. Aktibo finantzarioen nariaduragatiko galerek, bere aldetik, -0,02 puntu portzentualeko murrizketa erakusten dute, eta % 0,40an kokatzen dira BBGAen gain.

Aurreko epigrafe guztiek duten eragin metatua kontuan hartuz, Emaitzen Kontu Eskalar agregatuak 396,1 milioi €-ko isla du Ustiapeneko Jardueren Emaitzan, eta horrek esan nahi du aurtengo erregistroa -0,26 puntu portzentual txikiagoa izan dela, batez besteko guztizko aktiboaren % 0,51n geratuz ekitaldian.

Aktiboak kenduta, horiekin lotutako kontzeptu guztietan galdu-irabazien kontuari begiratuz gero, Zergen aurreko Emaitzak 362,6 milioi euroko zenbatekoa osatzen du guztira, aurreko ekitaldian izandako zenbatekotik 0,28 puntu atzera eginez eta batez besteko guztizko aktiboaren gainean % 0,47ko partaidetza edukiz. Gizarte-ekintza eta funtsetara nahitaez egin beharreko zuzkiduraren ostean Zergak kenduta lortzen den emaitza, bere aldetik, 397,3 milioi €-ra iristen da, batez besteko balantzearen % 0,51 eta aurreko ekitaldikoa baino 0,21 puntu portzentual txikiagoa, eta horrek -% 28,8ko murrizketa esan nahi du.

Sektorearekiko konparazioa

2010eko ekitaldiari dagokion Galdu Irabazien Kontu konparatuan, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen multzoaren eta sektorearen batez bestekoak alderatuz gero, aurrenekoen Marjina Finantzarioak (% 1,15) aurrezki-kutxen sektoreari dagokiona (% 1,11) gainditzen duela ikus daiteke, aurreko ekitaldian ez bezala. Horren arrazoiak da Federazioko Aurrezki Kutxen kostuen egitura (% 1,06) sektorearen batez bestekoa (% 1,44) baino hobea dela. Interes eta karga berdinetziarekin lotutako kostuak estutzeko egindako ahalegina nabarmen handiagoa izan da aurreneko kasuan (-0,74 pp), sektorean -0,66 pp-koa izan den bitartean.

Emaitzen Kontu Eskalarreko hurrengo epigrafeetan, Federazioko Aurrezki Kutxen portaera sektorearen batez bestekoa baino hobea izan da, Ustiapeneko beste karga batzuk sailari dagokionean izan ezik. Horrela, Federazioko Aurrezki Kutxen kapital-tresnen etekinak (% 0,35) 0,09 pp hobea dira; komisioak kenduta (% 0,49) emaitza sektorearen batez bestekoa baino 0,05 pp hobea da; Eragiketa finantzarioen emaitzak (% 0,28) 0,05 pp-ko ekarpena egiten dute Federazioko kutxen alde eta Ustiapeneko beste produktu batzuk sailak, azkenik, beste hamarren baten areagotzen du aldea (% 0,05).

GALDU-IRABAZIEN KONTU PUBLIKOA 2010eko ABENDUA	HEHAKF		CECA	
	% BBGAen gain	Bariazioa %tan BBGAen gain	% BBGAen gain	Bariazioa %tan BBGAen gain
Interesak eta etekin berdinetziak	2,21	-1,09	2,56	-1,07
Interesak eta karga berdinetziak	1,06	-0,74	1,44	-0,66
INTERES-MARJINA	1,15	0,36	1,11	-0,41
Kapital-tresnen etekina	0,35	-0,06	0,24	-0,08
Jasotako komisioak	0,49	-0,03	0,44	-0,01
Ordaindutako komisioa	0,04	-0,00	0,06	0,00
Eragiketa finantzarioen emaitzak (garbia)	0,28	0,08	0,23	-0,01
Kanbio-diferentziak (garbia)	0,05	0,06	0,02	0,00
Ustiapeneko beste produktu batzuk	0,05	0,03	0,06	-0,01
Ustiapeneko beste karga batzuk	0,15	0,11	0,07	0,03
MARJINA GORDINA	2,20	-0,37	1,97	-0,39
Administrazioko gastuak	1,02	-0,03	0,95	-0,03
Amortizazioa	0,14	0,00	0,10	0,00
Horniduretarako zuzkidurak (garbia)	0,14	-0,06	0,19	0,16
Aktibo finantzarioak narriatzeagatik galerak (garbia)	0,40	-0,02	0,40	-0,38
USTIAPEN-JARDUEREN EMAITZA	0,51	-0,03	0,32	-0,15
Gainerako aktiboak narriatzeagatik galerak (garbia)	0,09	0,04	0,13	0,00
Irabaziak / (Galerak) salgai dauden aktibo ez-korronte gisa sailkatuta ez dauden aktiboek baja ematean	0,10	0,04	0,04	-0,02
Negozio-konbinazioetako diferentzia negatiboa	0,00	0,00	0,00	0,00
Etendako eragiketa gisa ez sailkatutako salgai dauden aktibo ez-korrontean irabaziak / (galerak)	-0,06	-0,05	-0,01	0,01
ZERGA AURREKO EMAITZA	0,47	-0,28	0,22	-0,15
Irabazien gaineko zerga	-0,06	-0,09	0,04	-0,07
Gizarte-ekintza eta -funtsetarako nahitaezko zuzkidura	0,02	0,02	0,00	0,00
ERAGIKETA JARRAITUETATIK ERATORRITAKO EKITALDIKO EMAITZA	0,51	-0,21	0,26	-0,08
Etendako eragiketen emaitza (garbia)	0,00	0,00	0,00	0,00
EKITALDIKO EMAITZA	0,51	-0,21	0,26	-0,08

*Sektorearen totaletik Gordailuen Berme Funtsean (GBFan) sartuak dauden aurrezki-kutxak kenduz
Iturria: Guk landua

Aldeak edo desberdintasunak Marjina Gordinera aldatzen dira era horretan: aurreneko kasuan % 2,20koa da BBGAen gain, CECAko multzoaren erregistroa 0,23 puntu portzentualetan gaintuz. Epigrafe honek izan duen eboluzioa antzekoa izan da kasu bietan, 0,37 pp-ko eta 0,39 pp-ko atzerapenekin, hurrenez hurren.

Bai Administrazioko gastuak (% 1,02) eta baita Amortizazioak ere (0,14%) handiagoak izan dira Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxetan sektore osoko erregistroekin konparatuz gero (% 0,95 eta 0,10 pp hurrenez hurren). Eta kontrako zentzuan, Federazioko Aurrezki Kutxek zuzkidura gutxiago egin dituzte horniduretara (% 0,14), saneamendu gehiago egiteko premian zegoen sektore osoarekin alderatzen badugu (% 0,19), aktibo finantzarioen narriaturagatik galerak (% 0,40koak batez besteko guztizko aktiboaren gain) kasu bietan ia berdina izan diren bitartean.

Aurreko guztia konputatuz lortzen da Ustiapeneko Jardueren Emaitza, eta horrek % 0,51 suposatzen du BBGAen gain Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxentzat, eta % 0,32 BBGAen gain sektore osoarentzat. Puntu portzentualetan neurtuz, sektorean izandako murrizketa (-0,15 pp) Federazioko Aurrezki Kutxetan izandakoaren halako bost (-0,03 pp) izan da ekitaldian.

Gainerako aktiboak narriatzeagatik izandako galera txikiagoek, eta korronte bezala sailkatuak ez dauden aktiboaren irabazietan izandako aurrerapauso handiagoek, puntu-laurdeneko igoera eragin dute diferentzian Zerga aurreko Emaitzari dagokionez (% 0,47 BBGAen gain, aurrekoa % 0,22 zen bitartean). Epigrafe honetan izandako uzkurraldia edo murrizketa handiagoa izan da Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxetan (-0,28 pp-koa, sektorean -0,15 pp-koa zen bitartean), aurreko ekitaldian maila nabarmen hobea zelako (bikoitza baino gehiago) aurreneko kasuan.

Alde hori mantendu egiten da baita Zergen osteko Emaitzan ere; izan ere, zergak likidatu ondoren eta Gizarte Ekintza mantentzeko zuzkidura egin ondoren, % 0,51koa baita aurreneko kasuan, eta % 0,26koa besterik ez, sektore osoarentzat.

Laburbilduz, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxan kasuan bitartekaritzako marjina zertxobait hobeetatik, eragiketa finantzarioetako emaitzarik onenetatik, eta kostu finantzarioen egitura hobeagotik abiatuz, CECAko batez bestekoekiko aldeak zabalduz eta areagotuz joan dira, Federazioko Aurrezki Kutxan mesedetan betiere, sektorearen ia halako bi egiteraino ekitaldiko emaitzari dagozkion kontzeptuetan. Horrela, bada, egoera koiunturala ikaragarri konplexua izan arren, eta konfiantza-faltak, likidezia lortzeko zailtasunak eta araudi eta erregulazioen esparru aldakorrak traba eta oztopo ugari eragin arren, Federazioko Aurrezki Kutxek 2010eko ekitaldian zehar izandako jarduera bateratuari buruzko balorazioak positiboa izan behar du ezinbestean.

Bulegoak - Enplegatuak

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek 7.330 pertsona enplegatu dituzte guztira 2010ean. Horietatik % 69k Aurrezki Kutxaren jatorrizko lurraldean bertan kokatua dagoen bulego-
ren batean dihardu, gainerako % 31k bere eguneroko lana jatorrizko lurraldetik kanpo
betetzen duen bitartean. Plantilla, beraz, 206 pertsonatan murriztu da guztira (-% 2,7),
erakunde horiek arrazionalizazioarako eta kostuak hobetzeko egiten ari diren ahalegina-
ren barruan.

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen bulego-sareari dagokionez, 2010eko ekitaldiaren
amaieran 1.214koa da bulegoen kopurua, hau da sarea 5 bulegotan murriztu da, guztira.
Horrek -% 0,4ko jaitsiera esan nahi du. Bulegoen banaketari dagokionez, % 53,5 jato-
rrizko lurraldeetan kokatuak aurkitzen dira, gainerakoak, % 46,5 alegia, beste eskualde
batzuetara zabalduetako sareari dagozkion bitartean.

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxek ordainbideen modernizazioaren aldeko apustua-
rekin jarraitzen dute buru-belarri, bezeroen transakzioak ahalik eta gehien errazteko
filosofiaren barruan, eta horretarako aukera-sare zabala jartzen dute euren eskura. Pro-
dukturik zabalduena jaulkitako txartelak dira, eta txanpon-txartelak alde batera utzita
1.877.755 dira guztira, horien artean merkatuko sistema nagusiak hartuz (EURO 6000,
MasterCard, VISA, Maestro, etab.). Horrez gain, 2.299 kutxazain automatikok eta
merkataritzako saltegi nahiz dendetan ezarritako 26.736 saltokiko terminalek osatzen
duten sare zabalaren jabe dira.

